

## Sarrera

Proiektu honek aurrekoaren **JARRAIPENA** da eta **BERRIKUNTZAK** ditu baita.

Berrikuntza nagusia hauxe da: zenbait material eLearning formatuan aurkeztuko direla (Moodle plataforman). Hau da, gai osoak internet-en bidez ikasteko prestaturik egongo dira: informazioa, ariketa interaktiboak eta **EBALUAZIO** atalak izango ditu.

Ebaluazio honek (ordenadoreak egingo du prozesu hau) adieraziko du ikaslearen maila nahikoa den (ikasketa-prozesua egin ondoren) ala komeni zaion berriro ikastea.

Formatu hau interesgarria izan daiteke kasu hauetan:

- **formakuntza arautua:** DBH eta Batxilergoko ikasleentzat, bereziki errepasso garaian (azterketaren aurreko egunetan) zeren ikasi ondoren ebaluazio-tresnak dituelako Moodle plataforman
- **etengabeko prestakuntza:** materialak edonorentzat egongo da webgunean

Proiektuarekin jarraitzearen arrazoi nagusi bat materiala ondo baloratua dela ikustea da eta bisita dexente jasotzen ari dela (urteko 10.000 bisita inguru).

## Jarraipena

Neurri batean, proiektu hau aurrekoaren (ZientziaWEB) jarraipena da: Fisika, Kimika eta Teknologia arloen material pedagogikoa du. Aurten sartuko den materiala atal horiek hornitzeko izango dira; bereziki **hautaprobetako ariketa ebazuak** sartuko dira.

Jarraituko den beste bide garrantzitsu bat, material **ELEANITZA** egitea: ikastetxea (Lizardi Institutua) ELEANIZTUN PROIEKTUAN sartuko da 2007-2008 ikasturtean eta Fisika eta Kimika ingeleraz emango denez (Batxilergoa 01 maila) materiala ingeleraz ere argitaratuko dut. Hori lagungarria izan daiteke proiektu horretan sartzen diren ikasleak, irakasle eta ikasleentzat.

## Helburuak

Proiektu honek helburu hauek ditu:

- eLEARNING: Material interaktiboa Moodle plataformara egokitua: honela, ikasleak ikasi, ariketak egin eta ebaluatua izateko aukera izango du.
- KLASE BIRTUALAK: Fisika eta Kimikako klaseak on-line ikasteko aukera; hau da, testua, irudiak, animazioak, interaktibitatea eta ahotsa duten materialak webgunean argitaratu, denon eskura egoteko.
- ARIKETA EBAZTUAK. Selektibitateko (aurtengoak baita ere) eta beste azterketa-ereduak ebazu eta webgunean sartu. Honela, azterketa horiek nola burutu behar diren jakingo ditu ikasleak.
- MATERIAL ELEANITZA. Sortzen den material guztia hiru hizkuntzetan egongo da: euskaraz, gaztelaniaz eta ingeleraz. Honela, Hezkuntza Sailak ezarri nahi duen eta etorkizuna gehienetakoa duen ildoak jorratuko da: ikaslearen gaitasuna hizkuntz horietan, berariazko gaiak garatzean.

## Garatuko den produktua

Hauek izango dira argitaratuko diren materialak eta epealdiak

Epealdia	Materialak	Ezaugarriak
Iraila 2007	Materiala	Hautaprobetako ariketa ebaztuak (Fisika, Kimika, Teknologia – 2007) PDF dokumentuak
Azaroa 2007	eLearning materiala	Lotura kimikoa (Batxilergoa 01) Material interaktiboa: informazioa, ariketak eta ebaluaketa Hizkuntzak: euskaraz, gaztelaniaz eta ingeleraz
Martxo 2008		Zinematika (Batxilergoa 01) Material interaktiboa: informazioa, ariketak eta ebaluaketa Hizkuntzak: euskaraz, gaztelaniaz eta ingeleraz
Urria 2008	Materiala	Gai ezberdinak eta ariketa ebaztuak PDF dokumentuak Fisika eta Kimika

**eLearning materiala egiteko, estandarizatuta dagoen metodologia erabiliko da (eta TNKA erakundeak bultzatzen duena): materialaren diseinu curricularra eta jarraian materialgintza, diseinuaren arabera.**

Garatuko dira zientziako gaiak, ariketak eta gaien frogak. Materiala Flash eta HTML formatuetan egongo da eta webgune hauetan egongo dira:

- <http://www.zarautz.com/rafamunoa>
- Lizardi Institutuko webgunea <http://www.lizardi.org> (Moodle plataforma)